

## IRAGARKIA

2023ko abenduaren 15eko Alkate erabakiz, Eskoriatzako Udaleko ingurumen garapenerako teknikari plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu ziren.

Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2022ko abenduaren 27an) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (2023ko martxoaren 6an) argitaratu zen.

Merezimenduen balorazioa amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak Saioa Altzua Galparsoro praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena argitaratu du.

Proposatutako izangaiak egiaztatu du deialdiko oinarrietan ezarritako parte hartzeko baldintzak betetzen dituela; beraz, bidezkoa da praktiketako funtzionario izendatzea.

2024ko apirilaren 8ko alkate dekretuz honako hau erabaki da:

**Lehenengoa.-** Saioa Altzua Galparsoro Eskoriatzako Udaleko praktiketako funtzionario izendatzea, INGURUMEN GARAPENERAKO TEKNIKARI lanpostua betetzeko, administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa, A2 azpitalde sailkapenekoa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Lanpostuaz jabetzen denetik aurrera izango du eragina. Jabetze hori hilabeteko epean egingo da, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

**Hirugarrena.-** Izendatutako funtzionarioak, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, 6 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko du.

Epe hori amaitu eta proposatutako izangaiak praktikaldia gainditzen badu, karrerako funtzionario izendatuko da. Bestela, bere izendapenaren eskubide guztiak galduko ditu Alkatetzaren erabaki arrazoitu bidez.

**Laugarrena.-** Erabaki honen edukia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean eta iragarki-oholean argitaratzea dagozkion ondorioak izan ditzan.

Administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hala ere, hala nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete udal honetako Alkatetzari, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, egoki irizitako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

ALKATEA,

**ANUNCIO**

Por resolución de Alcaldía de fecha 15 de diciembre de 2023 se aprobaron las bases generales y específicas de la convocatoria del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, de una plaza de Técnico/a de Desarrollo Ambiental del Ayuntamiento de Eskoriatza.

El anuncio se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 27 de diciembre de 2022 y en el Boletín Oficial del Estado el 6 de marzo de 2023.

Terminada la valoración de los méritos, el Tribunal Calificador ha hecho pública la propuesta de nombramiento como funcionaria en prácticas a favor de Saioa Alzua Galparsoro.

La aspirante propuesta ha acreditado el cumplimiento de los requisitos de participación establecidos en las bases de la convocatoria, por lo que procede su nombramiento como funcionaria en prácticas.

Por decreto de alcaldía de fecha 8 de abril de 2024 se ha resuelto:

**Primero:** Nombrar a Saioa Alzua Galparsoro funcionaria en prácticas del Ayuntamiento de Eskoriatza para ocupar la plaza de TECNICO/A DE DESARROLLO AMBIENTAL, Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, subgrupo de clasificación A2, según lo establecido en la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

**Segundo:** El efecto será desde la toma de posesión, que se efectuará dentro del plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de su nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Tercero:** La funcionaria nombrada deberá superar un período de prácticas de 6 meses de duración, conforme a lo establecido en las bases de la convocatoria.

Finalizado este período y si el/la aspirante propuesto/a superase el mismo, será nombrado funcionario/a de carrera. En caso contrario, perderá todos los derechos de su nombramiento, mediante resolución motivada de la Alcaldía.

**Cuarto:** Publicar el contenido de la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, así como en la página web y en el tablón de anuncios a los efectos oportunos.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán presentar contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, y previo al recurso contencioso-administrativo, las personas interesadas podrán interponer, ante la Alcaldía de este Ayuntamiento, recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Todo ello sin perjuicio de la interposición de los recursos que se estime convenientes.

El ALCALDE.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAADZZ8M.zZdf>